Basque Writing 26

Euskararen Legea eta ElTBren Legea
40 urteko ibilbidea

Hizkuntza minorizatu baten biziraupena, hein handi batean, haren hiztun kopuruak baldintzatzen du; baina horrez gain,



hizkuntza erabiltzeko eskubidearen aitorpena ere beharrezkoa da hizkuntzaren biziraupenerako. 26. *Basque Writing* hau 80ko hamarkadan euskarak izandako bizibe-rritzean funtsezko izan ziren bi legeei eskaini diegu, lege horien 40. urteurrena hizpide izanda: **Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea** eta **Euskal irrati-telebistaren legea**.

Zein izan zen legeen sorreraren testuingu-rua? Nolakoa izan da legeen bilakaera? Zein izan dira aurrerapenak? Emaitzak? Hutsuneak? Zein dira etorkizuneko erronkak? Galdera guzti horiei erantzuna emateko hainbat adituren hausnarketak bildu ditugu aldizkari honetan.

Aldizkariaren lehen atalean, bi legeen tes-tuingurua eta legeek jasotzen duten funtsezko edukiak azalduko ditu **Xabi Payak**. Ondoren, **Pello Otxandianok** eta **Elixabete Garmendiak** beren gogoetak ekarriko di-tuzte legeen bilakaeran zehar egon diren argi-ilunen eta kontraesanen inguruan. **Patxi Baztarrikak** euskararen legeak eus-kararen biziberritzean eta errotzean izan zuen eta duen garrantziaz hitz egingo du. Ostean, **Josu Amezagak** eta **Jasone Agirrek** Euskal irrati-telebistaren legeak, lau hamarkadaren ondoren, dituen hutsuneak azpimarratuko dituzte. **Paul Bilbaok** legeen aplikazioak euskararen lurraldearen eremu des-berdinetan dituen deso-rekak nabarmenduko ditu. Azkenik, egungo komunikazio- eta aisialdi-errealitatean euskarak duen tokia gai hartuta, **Alex Aginagaldek** *Pan-tailak Euskaraz* ekimena azalduko du.



Sara Arregi
Euskal PEN

Euskal Irrati-Telebista Legea

Euskal Irrati-Telebista herri-erakundea sortzeko legea, ofizialki maiatzaren 20ko 5/1982 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko irrati-telebista zerbitzu publikoa garatzeko oinarrizko legea da, **Euskal Herri osoan emititzen duena** (Nafarroa eta Ipar Euskal Herria barne).

Gaur egun EITB osatzen dute **6 telebista-katek** (**ETB1**, Euskarazko kate orokorra; **ETB2**, Gaztelaniazko kate orokorra; **ETB3**, Gazteentzako katea euskaraz; **ETB4**, Entretenimendu kate elebiduna; **ETBSat** - Mundu mailako katea ele bietan; eta **Canal Vasco** - Latinoamerikara zuzendutako nazioarteko katea, bi hizkuntzetan), **5 irrati-katek**: **Euskadi Irratia**, kate orokorra euskaraz; **Radio Euskadi**, kate orokorra gaztelaniaz; **Radio Vitoria**, Gasteizko hiriari zuzendutako kate orokorra gaztelaniaz; **Euskadi Gaztea**, Gazteei zuzendutako euskarazko musika katea; eta **EITB Musika,** musika katea ele bietan) eta **web plataforma bat** (eitb.eus).

Testuingurua

1979an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 19. artikuluak Eusko Jaurlaritzari eskualdeko hedapen-zerbitzua garatzeko eskubidea eman zion. **1982ko maiatzaren 20an, Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen** Euskal Irrati-Telebista eratzeko legea. Euskadi Irratiaren lehen irratsaioa azaroaren 23an izan zen, eta ETB telebista katea 1982ko abenduaren 31ko gauerdian jarri zen martxan Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak egindako aurkezpenarekin, nahiz eta **eguneroko etenik gabeko programazioa ez hasi 1983ko otsailaren 16ra arte**. Garai hartan 30 bat lagunek egiten zuten lan Iurretako ETB zentroan (Bizkaia, Euskal Autonomia Erkidegoa) euskarazko programazioan.

Edukia

Legeak zehaztu zituen hedabide-zerbitzu publikoaren **antolaketa eta egitura** (Presidentea, Zuzendaritza Batzordea eta Zuzendari nagusia) eta antenen eta difusio-azpiegiturei buruz aipatu beharreko gai tekniko guztiak. Bereziki interesgarria da legearen 3. artikulua, **zerbitzuaren helburu nagusiak** azaltzen baititu:

a) Informazioaren **objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna**.

b) **Informazioaren eta iritziaren arteko bereizketa**.

c) Ekitatea eta **pluraltasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoa** errespetatzea.

d) Espainiako Konstituzioan eta Estatutuan adierazitako **hiritar-balio guztien defentsa** eta aipatutako bi legeetan jasotako **eskubide guztiak errespetatzea**.

e) Pertsonen ohorerako, intimitaterako eta **norberaren irudirako eskubidea errespetatzea**.

f) **Gazteriaren eta haurtzaroaren babesa**.

g) **Euskara eta euskal kultura sustatzea**, euskararen erabileraren arabera, saioetarako oinarrizko printzipioak finkatuz, kontuan hartuta autonomia-erkidegoan euskarazko telebista eta irratsaio orekatuak eskaintzeko beharra.



Euskararen Legea

Euskararen legea, ofizialki azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan **euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea da.** 1982an onartu zen hizkuntzaren egoera arautzeko eta koofizializatzeko.

Testuingurua

1975ean Francisco Franco diktadorea hil zenean, Hego Euskal Herrian euskararen aldeko mugimendu sozial indartsua sortu zen. **1978an**, Espainiako **Konstituzioak gaztelania ezagutzeko betebeharra ezarri zuen**, baina beste hizkuntza batzuk euren eskualdeetan koofizialak izatea baimendu zuen ere. **1979an**, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak **euskararen erabileraren ildo nagusiak ezarri zituen** hezkuntzan, komunikazioan edo administrazioan.

1982ko azaroaren 24an **Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen Euskararen Legea**. Zoritxarrez, Espainiako Gobernuak helegitea jarri zuen legearen aurka Espainiako Auzitegi Konstituzionalean, eta 1986ra arte ez zen behin betiko onartu.

Edukia

Euskal legearen **<u>lehen kapituluan</u>** hizkuntzaren arloko **herritarren eskubideak eta botere publikoen betebeharrak** ezarri ziren. Bereziki arautu zuen herri-administrazioen eta toki-administrazioen jarduera:

- Herritarrek eskubidea dute autonomia erkidegoko administrazio publikoarekiko harremanetan **euskara zein gaztelania erabiltzeko**.
- Administrazio publikoak **ele bietan komunikatu** behar du.
- Toki- eta foru-erakundeek eskubidea dute euren ardurapeko **izen ofizial guztiak ezartzeko**.
- **Itzulpen zerbitzu ofiziala** sortu zen, eta euskara eta gaztelaniaren arteko zinpeko itzulpena arautu.
- Era berean, **funtzionarioen artean euskara sustatzeko neurriak** zehazten dira.

<u>Bigarren kapituluak</u> euskara **hezkuntza arloan arautu zuen**. Herritarrek eskubidea dute **hezkuntza-ibilbide osoa gaztelaniaz edo/eta euskaraz** egiteko. **Irakasleek bi hizkuntzetan** lan egiteko gai izan behar dute, eta euskara aukeratzen duten ikasleek Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean hizkuntza menderatu behar dute.



<u>Hirugarren kapituluan</u> hedabideetan euskara erabiltzeko eskubidea ezarri zen. Herritarrek euskaraz eta gaztelaniaz informatzeko eskubidea dute, beraz, Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera sustatu behar du **erkidegoko eta estatuko hedabideetan**.

<u>Laugarren kapituluan</u> euskararen **erabilera gizarte arloan** arautu zen. Beste helburu batzuen artean, Eusko Jaurlaritzak helduen artean hizkuntza **ikastea eta alfabetatzea sustatzeko** erakunde bat sortzeko eskubidea du.

Azkenik, **<u>bosgarren kapituluak</u>** ezarri zuen Eusko Jaurlaritzak **zaindu behar duela hizkuntzaren bateratzea** eta bere normalizazio prozesua.



Xabi Paya
Sortzailea, itzultzailea eta Euskal PEN-Idazkaria

Legeen argi-ilunak

Euskararen Normalizazio Legeak eta Euskal Irrati Telebistaren Legeak **40 urte beteko dituzte aurten**. Bi legeon oinarri juridikoek gaur egun zer eraginkortasun daukaten aztertzeko, eta, ondorioz, gaur egun zer puntutaraino diren baliogarriak baloratzeko, k**ontuan hartu beharko litzateke mundua zenbat aldatu den 40 urteotan**. XXI. mende honek ez baitu zerikusirik lege horiek onartu ziren garai harekin alderatuta.

Euskararen normalizaziorako itxaropena hezkuntzan eta irrati-telebistan jarri zela eta, batak zein besteak, **ez dutela espero zena eman entzun nion behin Joan Mari Torrealdairi**. Ikuspegi ezkorragoa edo baikorragoa izan dezakegu egin denaren gainean, **beti dira argiak eta ilunak**. Baina horren gainetik, uste dut badagoela errealitate gordin bat: gaur ez dakigu euskal irrati-telebistari sorreran egotzi zitzaion **funtzio soziala mantentzen den ala ez**, edo gutxien-gutxienik zalantza arrazoizko eta pisutsuak daude esateko funtzio sozial hori erabat lausotu dela. Eta euskararen legeari dagokionez, auzitegietatik datozen ebazpenak ikusita, begien bistakoa da oinarri juridikoak ahulegiak direla eta **lege adierazpen berri bat behar dugula** hizkuntza eskubideak babesteko.



Pello Otxandiano
Politikaria eta Telekomunikazioen injeniaria

Makro-kontraesanak

Hiru anai-arreba pakistandar adierazpenak euskaraz egiten ETBn, nondik eta Londrestik ipa-rraldera dagoen Luton hiritik. Elizabeth II-aren herio-tzak eragindako informazio uholdearen baitan zetorren erreportajea. Pakistandarrak euskaraz Erresuma Batutik! Esplikazioa: Euskal Herrian bizi izan ziren umetan, Zumarragan eta Antzuolan hain zuzen ere; azken **herri horretako euskalkia zerabilten**.

Pakistandarrek eskolan –eta kalean– ikasiko zuten euskara. Eskolan, berrogei urte betetzera doan ***"Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea"*ri esker**. 1982ko azaroaren 24ko lege horrek ireki zion bidea euskarazko irakaskuntzari, bigarren kapituluan ***"euskararen erabilera irakaskuntzan"*** arautzen baitzuen.

Era berean, duela berrogei urteko **beste lege batek ere izango zuen zerikusia** pakistandarren euskalduntzean: Euskal Irrati Telebistaren legeak, hain zuzen ere, 1982ko abenduaren 31n estreinatu zen Telebista euskaraz mintzo baitzen.

Pakistandar euskaldunen aitzakian **lege aitzindari haiei aitorpena eginda**, galdera pare bat geratzen zait. Bat: nola liteke oraindik ertzain batek erre-pidean gerarazi eta **gaztelania hutsez aritu beharra harekin**? Bi: noiz zuzenduko da euskarak eta hizkuntza honetan bizi eta garatzen den munduak Euskal Telebistan **pairatzen duten bigarren mailako tratamendua**?



Elixabete Garmendia Lasa
Kazetaria prentsa idatzian eta irrati-telebistan

Demokrazia Linguistikorako Legea

Hizkuntza ez hegemonikoen osasuna beti da hauskorra. **Euskara ikaragarri hazi da 40 urteotan**: milaka hiztun irabazi ditu, eta erabilera esparru ugari. Baina erronka konplexuak ditu aurrez aurre. **Etorkizuna hemendik aurrera egiten denaren esku dago**: batez ere herritarren eta hiztunen gogoaren eta praktika linguistikoen esku, eta, jakina, lege-arauen, hizkuntza politika publikoen, erakundeen eta gizarte bultzadaren esku.



Argazkia: Santi Vaquero

XIX. mendeaz geroztik gainbehera nozitu zuen euskarak. 1980ko hamarkadan, autogobernua makulu hartuta, alto eman zitzaion atzerakadari, eta ateak ireki bizberritzeari. **Argi-ilunak izan dira bidean, baina argiuneak gailendu dira nabarmen**. Batez ere adinekoen hizkuntza zen atzo, hizkuntza gaztea eta bizia da gaur.

Prozesu horren markoa 1982an Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Legea da, zeinak **bi helburu nagusi baitzituen**: lehena, euskara eta euskal hiztunak babestea; bigarrena, herritar elebidunez osaturiko gizarte elebiduna eraikitzea, progresiboki, belaunez belaun. **Legeak bi ardatz ditu: eskubideak eta betebeharrak**. Herritar guztiei eskubide berak aitortzen dizkie: euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, eta zehazki, hezkuntza, administrazio zerbitzuak, prentsa eta ikus-entzunezkoak, zerbitzu kultural eta sozioekonomikoak euskaraz jasotzeko eskubidea, gizarte bizitzan euskaraz aritzeko eskubidea. **Herri-aginteei, berriz, obligazioak ezartzen dizkie**, herritarrei aitortutako eskubideak progresiboki gauzatzeko eta euskararen normalizaziorako sustapen politika aktiboak garatzeko. **ETBren legea bera printzipio horien fruitua da**, informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko egina.

Euskararen Legea **kontsentsu politiko zabalak egin zuen posible**. Segurtasun juridikoa areagotzearen eta lege guztiek eta politika publikoek behar dituzten egokitzapenen kalterik gabe, **gaur egun ere baliozkoak dira** Legearen printzipio eta helburuak. Euskararen auzia, finean, eskubideen eta berdintasunaren auzia baita, hots, demokrazia linguistikoaren erronka. Berdintasun efektiboa, elkarbizitza harmoniatsua eta euskararen zabalkunde eta errotze soziala dira euskara bizi-berritzearen balioak. **Euskararen Legearen bizkarrezurra tresna eraginkorra da horretarako**.



Patxi Baztarrika
Politikaria eta Hizkuntzalaria

EiTB Legea lau hamarkadaren ondoren

40 urte bete berri dira EITB sortzeko legea onartu zenetik. Euskal gizarteak telebista eta irrati sistema publiko propioak sortu eta garatu zituen hari esker, eta horrek **bultzada handia eman zion euskarazko komunikazio sistemari**, herri ekimenetik zetorren eta gerora handitu zen sistemarekin osagarri bihurtuz.

Legeak funtsean bi beharri erantzun behar zien: euskararen normalizazioa bata, eta autonomiaren eskutik sortu berria zen subjektu politikoaren eraikuntza bestea. Ebazteko zaila den **kontraesana sortu dio honek**, lau hamarkadetan, EITB-ri: **zein hizkuntzatan eraiki subjektu politiko hori?**

Zeri eman lehentasuna: hizkuntzaren normalizazioari, ala neurri handian euskara ulertzen ez duen populazio bati zuzentzeari? Horrela planteatu zen auzia 1980ko hamarkadan eta **horretan dirau oraindik**, **nahiz eta aldaketa sakonak gertatu** maila soziolinguistikoan (gaur egungo euskal herritarren erdiak baino gehiagok euskara ulertzen du), komunikatiboan (sareko komunikazioaren eztanda) zein teknologikoan (azpidatziak eta bigarren audio kanalak). Eta galdera horiei emandako erantzunak, nire aburuz, **bigarren mailan utzi du euskara**, bereziki telebistaren kasuan diglosia egoera birsortuz.



Josu Amezaga
EHUko irakaslea eta kazetaria

Ikus-entzunezko euskal lege bat behar dugu

Momentu magikoa bizi izan genuen orain dela 40 urte gure herrialdearen zati batean. Francoren diktadura amaitu berri, dena zegoen egiteko. Lege berriak behar ziren, baita hizkuntzaren arloan ere. Geure hizkuntza babestu, indartu eta prestigioa emateko sortu ziren euskara normalizatzeko legea eta Euskal Irrati Telebista publikoarena. Asko eman dute lege bi horiek eta batez ere Irrati-Telebista publikoarenak. **Munduan kokatu gintuen, gu baginela nor sinestarazi zigun**. Kazetaritza, kirol emankizunak, filmak edota entretenimendua kalitatekoak eta euskaraz izan ahal zirela erakutsi zigun.

Baina zer diren gauzak, gerora lege horretan egindako aldaketa baten bidez, **espainierazko kate bat sortu zen** komunikabide publikoan, eta **euskarazko katearen lehiakide bilakatu zen** programazioan, finantzazioan, prestigioan eta jakina, audientziaren banaketan: Euskarazko kateko ia ikusle guztiak espainierakora joan ziren.

Harrez geroztik, 40 urtean legea ez da aldatu, eta **apurka-apurka zahar geratu da**. Zahar eta urri, ikus-entzunezkoen paradigma guztiz aldatzen ari den honetan, **gainditua dagoelako ohiko telebistaren eredua bera ere**. Orain, Ikus-Entzunezko euskal lege bat behar dugu. Jarrai dezagun magia egiten!



Jasone Agirre
Politikaria eta kazetaria

Ortzi-muga berria Euskararen Herrian

20.950 km2 besterik ez duen lurraldean kokatuta dago euskal hizkuntza-komunitatea. Lurralde-eremu txikia izanagatik, euskaldunon **hizkuntza-eskubideen aitortza bi Estatuk ezartzen dute, eta Estatuetako batean bi gobernu autonomikok.** Horrek ondorio bat dakar: herritarrari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkiola hizkuntza eskubidea; hau da, herritar batzuei berezko hizkuntzan bizitzeko oinarrizko eskubide gehiago aitortzen zaizkiei, eta beste batzuei gutxiago edota bat ere ez.



Izan ere, lege desberdinek arautzen dute hizkuntza-eskubideen esparrua. Eremu batzuetan, **Franziako Estatuan, esaterako, legeak berak ukatzen du izan bagarela**; Espainiako Estatuan hizkuntza hemegoniko den **gaztelania ezagutzeko derrigortasuna dugu**. Bestalde, bertan kokatutako **Nafarroako autonomia-erkidegoan herri batzuetan eskubide batzuk aitortzen dira eta gainerako gehienetan ez**. Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, herritar guztiei, maila teorikoan bada ere, eskubide berdinak aitortzen zaizkie, lurralde osoan baita euskara ofiziala (hizkuntza hegemoniko gaztelaniarekin batera).

Duela berrogei urte Eusko Legebiltzarrak ofizialtasun hori egikaritzeko legea jarri zuen indarrean. **Zalantzarik ez dago lege horrek emaitza oparoak ekarri zituela**. Halere, gaur egun **oraindik** autonomia erkidego horretan **herritarrei hizkuntza-eskubideak urratzen zaizkie**, eta eremu batzuetan nahiko sistematikoki.

Zorionez, berrogei urtean gauzak asko aldatu dira. Ofizialtasunaren eta lege horren ondorioz gero eta elebidun gehiago gara. Dena den, berrogei urtean gizartea asko aldatu da eta **euskaraz bizi ahal izateko behar berriak sortu dira**, eremu digitalean edo ikus-entzunezkoetan esaterako.

Horrela, ez dut uste orain egindakoaren inguruan katramilatu behar dugunik. Euskararen Legeak eskaintzen zituen aukerak ustiatu dira, baina **bada garaia Lege hori birpentsatzeko**. Egun oraindik gertatzen diren hizkuntza-eskubideen urraketak konponbidean jarriko dituen legea, egungo testuinguru soziolinguistiko gero eta euskaldunari erantzungo dion legea, **komunitateak dituen behar berriei erreparatuko dien legea behar dugu**.

Esan bezala, euskararen herriko beste eremuetan ez bezala, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ezarrita dagoen **ofizialtasunak aukera berriak eskaintzen ditu**, jauzia egiteko parada ematen du. Izan dadila gure ortzi-muga euskaraz bizi nahi duen komunitate sendoari benetan erantzungo dion legea.



Paul Bilbao
Euskalgintzaren Kontseiluko Idazkari Nagusia

Pantailak Euskaraz: euskarazko ikus-entzunekoen aldeko ekimena

Pantailez inguraturik bizi gara. Ikerketen arabera, **egunean 11 eta 13 ordu artean igarotzen ditugu pantaila ezberdinen aurrean**: mugikorra, telebista, tableta, ordenagailua… **Baina zein hizkuntzetan daude** azken urteotan gure aisialdiaz jabetu diren tresna hauetan kontsumitzen ditugun edukiak?

Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko euskarri berrien aurrean tokia galtzen ari den **Telebista tradizionalean, euskarak duen lekua txikia da**. Ditugun hamarnaka telebista kateen artean **euskaraz ETB1, ETB3 eta HamaikaTB** ditugu.

Zinemei dagokionez, emanaldien %1 eskaintzen da euskaraz Euskal Herrian. **Ez dugu nazioarteko film arrakastatsuak euskarara bikoiztuta edo azpidatzita ikusteko aukerarik**. Harriga-rria da bi hizkuntza ofizial dauden lu-rralde batean euskaldunon diskriminazio egoera hau zein normalizatua dagoen ikustea.

Zinema eta telesailen merkatua irens-ten ari diren **streaming plataformetan, berriz, euskararen presentzia anekdotikoa da**. Mun-duan nagusi diren Netflix, PrimeVideo, Disney+ eta HBOmax **plataformen katalogoetako edukien %0,1 baino gutxiago** dago euskaraz. Youtube, Twitch, edo Tiktok bezalako **sare sozialetan ere oso zaila da** euskarazko edukiak aurkitzea.

Ikerketa soziolinguistikoek frogatzen dute aisialdia bizi dugun moduak erabateko era-gina duela hizkuntza ohituretan. Eta aisialdiaren zatirik handiena pantailek xurgaturik pasatzen dugu. Beraz, **euskara pantailetan ez badago, zaila izango da euskararen normalkuntzan au-rrera egitea**.

2021eko ekainean ikus-entzunezkoen itsaso geroz eta zabalagoan eus-karak duen presentzia eskasa-rekin arduratuta, hainbat herri ekimen eta **eragilek indarrak batu eta *Pantailak Euskaraz* ekimena sortu genuen**. Gaur arte, babesten ditugun kanpaina ezberdinen artean, **30.000 sinaduratik gora** bildu eta **500 laguntzaileko sarea** osatu dugu.

Urte osoan zehar gaia eztabaida sozial eta politikoaren erdigunera eramaten ahalegindu gara: bilerak egin ditugu erakunde ofizialekin; eta elkarlanean aritu gara euskalgintza, hezkuntza eta ikus-entzunezkoetako eragileekin, euskarak pantailetan duen erronkari elkarrekin aurre egiteko. **Azken hilabeteotan erakunde, eragile, eta enpresak mugitzen hasi dira.** EITBk streaming plataforma baten sorrera iragarri du, eta Netflix eta Amazon Prime Video euskarara bikoiztu eta azpidatzitako edukiak txertatzen hasi dira.

Gure hizkuntzaren etorkizunarentzat estrategikoa da egoera iraultzea; baina horretarako legezko babesa, egiturak eta, batez ere, borondate politikoa behar dira. ***Pantailak Euskaraz***ek lanean jarraituko du norabide horretan.



Alex Aginagalde Lopez
Pantailak Euskaraz ekimeno bozeramailea

Egileak: Maddalen Subijana, Sara Arregi eta Laura Mintegi.
Diseinua eta maketazioa: Laura Mintegi.

pen@euskalpen.eus
www.euskalpen.eus

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
Babeslea

BASQUE PEN
Agoitz Plaza, 1.
48015 Bilbao-Bizkaia
Euskal Herria